

MENDIZALEA

(Aurtengo indar-neurtzeetan Saria irabazia)

Euskal mendiko zimur batean
ni jayotako errian,
basolizar bat liraña bada
atz bat daukana gerrian;
egonagatik geigon artian,
baso beltzaren erdian,
choriak anche jarduten dira
kantari udaberrian.

Aren ondotik igarotzean
aitortzen dizkit biotzak
mutil gaztea nitzan garaiko
pozgarri diren oroitzak;
pozez betetzen ziran barrena
ordu ametz bakoitzak,
baten ondoren bestea bazan,
nola gaur neke ta gaitzak.

Choko bateko arkaitz azpian
jayotzen da ur garbia,
iñil išilik goroldiyoak
irenchi nairik guzia;
onera dator ardi taldetik
egarritzen dan ardía
artzai mutilla, ikazkin beltza,
lizar gañeko choria.

Baba zarrakin artua jenez
ikazkiñakin batian,
pozik nitzake, baldin al banu
biziko mendi mendian;
lo nai danean, jan al danean
bakoitza bere neurrian,
lasatazunan bizi izateko
ez dek olakorik errian.

Mendi batetik, beste mendira
pakea dala mugarri,
artzai gazteak jarduten dira
irrintz, oyuka alkarri;
oyen biotzak ezeren gaitzez
nola ez dauden elbarri
egualdiona izan ezkeru
guzia dute pozgarri.

Mendi tontorrek ikusten dira
uda ta negun berdiñak,
galdetu gabe esanaz daude
zeiñ eskuk diran egiñak;
au bera daki urrun ez dagon
ichaso zabal urdiñak,...
bakar bakarrik aïtormen ori
ez du nai erri zikiñak.

Jaungoiko gabe bizi zerana
 ¿zerbait al dezu inundik?
 Utzi dezazu erri zikiña
 t'atoz neregan erritik;
 begira zazu, ikusi ondo
 zer agiri dan menditik...
 ¿Jaungoikoaren aunditasuna
 ukatzen dezu oraindik?...

Chori soñuaz, beste chint gabe,
 baldin banabill basoan,
 iduritzen zait ibiltzen naula
 aingeru batek besoan;
 atsegiñezko indar guziak
 bildu nai dute gogoan
 biotza berriz zabaldu nairik
 eziñ egon da kolkoan.

Ez da iristen emen goraño
 or beko keru lizuna,
 jolas egiñaz goitik dator-ta
 zeruko aize biguñia;
 betor, bai, betor, aitor nai dunak
 Jaunaren aunditasuna
 lan ortarako badaukagu-re
 adimen argi illuna.

EMILIANO MUJICA TA LASKIBAR

